

IV. ERANSKINA

IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

a) Familia-unitatearen urteko errenta (kontzeptu metagarriak dira, harik eta ataleko gehieneko puntuazioa lortu arte).

– 2019ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 12.600,00 euroak gainditzen: 0,5 puntu.

– 2019ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu: 0 puntu.

– Horrez gain, aurreko kasuetan, 0,25 puntu gehituko dira eskatzailea ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko.

– Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 1,5 puntu.

b) Bizilekuaren gertutasuna (kontzeptu hauek ez dira metagarriak).

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago ikaslearen bizilekua: 5 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakide batean dago ikaslearen bizilekua: 2 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen udalerrian dago ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: 1 puntu.

– Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo: 0,5 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago aitaren, amaren edo legezko tutorearen lan-tokia: 2 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

– Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 5 puntu.

c) Ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak izatea (kontzeptu hauek ez dira metagarriak).

– Neba-arreba bat edo gehiago daude matrikulatuta eskatutako ikastetxean edo hari atxikitako ikastetxeren batean: 9 puntu.

– Eskatutako ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiten dute aitak, amak edo legezko tutoreak: 7 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

– Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 9 puntu.

d) Familia ugariko kide izatea.

– Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: 1 puntu.

– Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

e) Familia-harrerako egoera.

– Ikasle eskatzailea familia-harreraren egoteagatik: 1 puntu.

f) Desgaitasuna (kontzeptu honengatik gehienez jaso daitezkeen puntuak: 2 puntu):

– Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu.

– Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo neba-arrebaren batena baldin bada: 1 puntu.

g) Kooperatiba-bazkide izatea.

– Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

h) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo eskola-kontseiluaren ustez garrantzitsuak diren bestelako arrazoiak.

– Ikastetxeko eskola-kontseiluak edota Ordezkaritza Organo Gorenak ezarritako baldintzenatik, aurretik esandakoak izan daitezkeenak. Horiek irizpide publiko eta objektiboei jarraikiz eta jaiotza-, arraza-, sexu-, erlijio-, iritzi-arrazoiengatik edo beste edozein egoera edo baldintza personal edo sozialengatik inor baztertu gabe ezarri dira: 1 puntu gehienez (baldintzak jakitera eman beharko dira, eta dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari jakinarazi, eskabideak aurkezteko epea hasi baino lehen).